

BBK BILBAO MUSIC LEGENDS FEST 2026



Ekainaren 26an eta 27an BBK Bilbao Music Legends Fest 2026 Bilbao Arenan, Tom Morello eta Chris Isaak buru dituela

Dotoretasuna, matxinada eta rockarekiko pasioa batuko dira Bilbao Arenan ekainaren 26an eta 27an. Rage Against the Machine eta Audioslave taldeen sortzailekide den Morellok Estatuan emango duen kontzertu bakarra eskainiko du Bilbon, BBK Legends Bilbaon, 2026ko ekainaren 27an.

BBK Legends Bilbao 2026ko ekainaren 26an eta 27anegingo da Bilbao Arenan, lehen edizioa ospatu zenetik hamar urte beteko direnean.

Ostiraleko, ekainaren 26ko, jardunaldian, Chris Isaakizango da BBK Legends Bilbaoren lehen egunean buru, bere estilo paregabearekin: dotorezia retroa, surf kutsuko soinua eta Amerikako tradizioz edaten duen sentsibiltatea uztartzen dituena. Kultuzko artista eta rock estatubatuarren erreferente nagusietako bat den Isaak berriro itzuliko da Bilbora, 2023an BBK Legendseko bere aurreko bisitan sarrera guztiak agortu ondoren.

Bere abestirik ikonikoena, Wicked Game, belaunaldi oso bati markatua geratu zaio, eta gaur egun ere pop-rock modernoaren kanturik ezagunenetakoa bat da. Estatu Batuetako abeslari eta aktorea bere betiko bandarekin, Silvertonekin, igoko da eszenatokira, 70. urtebetetze-egunean

bertan

Larunbatean, ekainaren 27an, berriz, Tom Morello izango da protagonista. Rage Against the Machine eta Audioslave taldeen sortzailekide izateaz gain, azken hamarkadetako rockaren figura iraultzaile eta aktibista nabarmenetako bat da. Euskadin emango duen lehen kontzertua izango da, eta Bilbon izango duen data bakarra Estatu osoan; hortaz, oso hitzordu berezia izango da jarraitzaileentzat. Rock'n'rollaren indar eraldatzailearen adibide bizia den Morello gitarra-soinu berritzaileengatik eta riff boteretsuengatik da ezaguna; musika garaikidea irauli du, bai bakarkako ibilbidean, bai banda mitikoetako sortzailekide gisa egindako lanarekin. Rolling Stone aldizkariak "Denboraldi guztietako 100 gitarjole onenen" zerrendan 18. postuan kokatu zuen, eta Rock & Roll Hall of Fame eta Heavy Metal Hall of Fame ospe-aretoetan ere sartu dute.

Musika-egutegiko ezinbesteko hitzordu gisafinkatu ondoren, BBK Legends Bilbao ekitaldia Bilbao Arenara itzuliko da, rockaren eta bluesaren mito handien, haiekin hazi ziren belaunaldien eta haien ondarea aurkitu duten belaunaldi berrien arteko topagune bihurtzeko. Ekitaldiakizaera irekia eta zeharkakoa berresten du, muzikazale gazteetatik hasi eta familia osoetaraino (sarrera doan 14 urtera arte).

Eguneko sarrerak eta bi eguneko bonuak gaurtik aurrera daude salgai, eta www.musiclegendsfestival.com web gune ofizialaren bidez erosi ahal izango dira.

[Sarrerak erosi](#)

10 URTE
ANDS
YEARS
2016-2026

BBK
LEGENDS
BILBAO

Partenariatu ofiziala Bilbako musikariak
bbk e

★ EKAINAK 26 JUNIO

CHRIS ISAAK
CRACKER
DEA MATRONA

★ EKAINAK 27 JUNIO

TOM MORELLO
OF RAGE AGAINST THE MACHINE AND AUDIOSLAVE

★
EXCLUSIVE SHOW
IN SPAIN 2026
★

ADRIAN BELEW & TONY LEVIN
OF KING CRIMSON
DANNY CAREY OF TOOL
& STEVE VAI
PERFORMING THE MUSIC OF BOB KING CRIMSON

BEAT
GRAVEYARD

LIVE THE LEGEND ⚡

EKAINAK 26-27 JUNIO 2026 · BILBAO ARENA
www.musiclegendsfestival.com

Bilbao



Partenariatu ofiziala Bilbako musikariak
bbk e

DANKER